

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### **63/2016 Mozioa, urriaren 26koa, Arabako kultur politikak bultzatzeari buruz**

Arabako Batzar Nagusiek, 2016ko urriaren 26an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

#### 63/2016 Mozioa, urriaren 26koa, Arabako kultur politikak bultzatzeari buruz

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari exijitzen diote lankidetzan aritu dadila parte-hartze prozesu ireki batean kultur eragileekin, Mahaiarekin, kultur fundazioekin, udalekin eta Eusko Jaurlaritzarekin ezartzeko, gehienez hiru hilabeteko epean, Arabako Kulturaren Plan Estrategikoa, agindu zen bezala.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari exijitzen diote ezen, behin plan hori eginda, Batzar Nagusietan aurkeztu dezala, Ganberako Araudiaren 186. Artikuluan Foru Aldundiaren komunikazioei buruz xedatutako prozedura betetze aldera.

3. Arabako Batzar Nagusiek, kontuan izanda politika kulturalak modernizatzeko europar funtsak eskuragarri direla, hala nola Europa Sortzailea 2014-2020 Programa eta bere finantza bermerako tresna, zeina kudeatzen baitu Inbertsioen Europar Funtsak sektore horretako enpresa ertain eta txikien finantzazioa babesteko, Arabako Foru Aldundiari exijitzen diote lankidetzan aritu dadila sektore horretako ordezkariekin, instituzioekin, fundazioekin eta Europa Sortzailearen Madrileko bulegoarekin sustatzeko eta abian jartzeko EBren finantzazioa jaso dezaketen nazioarteko proiektuak.

4. Arabako Batzar Nagusiek Euskara, Kultura eta Kirol Sailari eskatzen diote sartu dezala Arabako Kulturaren Plan Estrategikoan, jarduera-ildo gisa, Arabako kreatibitatea eta kultur industriak bultzatzea.

5. Arabako Batzar Nagusiek Euskara, Kultura eta Kirol Sailari eskatzen diote ahalbidetu diezaiea kultur eragileei dauden laguntza guztien informazioa eskuratzea zein Sailaren barruko laguntza tekniko beharrezkoa laguntza guztien eskabidea betetze aldera, direla Eusko Jaurlaritzarenak, estatuarenak edo Europakoak.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko urriaren 26a

*Presidentea*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**